


Juan San Martin Liburutegia
“*Idazlearekin harixa emoten*”



Gilles de Rais

Anjel Lertxundi, Alberdania, 2020

Iruzkina: Antxon Narbaiza, 2021-05-11



Wikipedian

https://labur.eus/Anjel_Lertxundi

Basque literature

<http://www.basqueliterature.com/es/Katalogoak/egileak/lertxundi>

Alberdania

<https://www.alberdania.net/es/autor/anjel-lertxundi/>

Jakin beharrekoak

Gilles de Rais nobelak, izen bereko narrazioa garamatza, hain zuzen, Anjelek berak, 1995. urtean Alberdania argitaletxean bertan argitaratu zuen hartara: **Piztiaren izena** izenburupean (47-87. orr.) Kontraera oinarri-oinarrian gertakari nagusi baten inguruan ari bada ere, pertsonaien izenak ber-berak dira baita euren eginkizunak ere; oraingoan Lertxundik beste ukitu bat eman dio Gilles de Rais honi. Inspirazio iturri, 1983an Michel Tournier idazle frantsesak plazaratu zuen **Gilles et Jeanne** narrazioan (Gallimard, argitaletxea).

D´Arc-eko Juana eta Gilles de Rais: historiatik fikziora, fikziotik historiara

Gure 2020ko kontakizun honekin hasteko, historiara hurbilduko gara nobelaren barrunbeetan sartu aurretik. Oraingoan ere, arestian aipaturiko bi pertsonaiok dira gailen kontakizunean:

D´Arc-eko Juana (Donrémy, 1412-1431) eta **Gilles de Rais** (1404-1440), ditugu bada, nobela honetako “sujetak”, beraiek dira arrazoi eta langai Anduren eleberrian.

D´Arc-eko Juana, Orléans-go dontzeila, mitoaren eta historiaren zurrumbiloin mugitzen den pertsona-pertsonaia dugu. 15 urtekin gizon jantzirik harmada bat darama ingelesen aurka eta garaipen (partziala) lortzen du. Baina ingelesek atxilo hartuko dute eta sutan hiltzera kondenatu 19 urterekin. Haren zigorraren aitzakian baina, sorginkeria, kristautasun faltsuaren eta bestelako erritu salaketak agertuko dira...

Baina zein izan zen **Arc´eko Juana**? Artzain pobre bat, irakurtzen eta idazten ez zekiena eta, egun batez, bere ardiekin larrean ari zela, halako Jainko-dei bat jaso zuena¹, Frantzia ingelesengandik salbatu behar zuela esaten ziona? Egia al da hori? Gaur egun bazterturik dagoen irakurketa: Juana, bizitza eroso samarra zuen familia bateko partaide genuke, artzaintza konturik eta apenas ezagutzen zuena.

Gilles de Rais-ek noblearen bizitzak, bere aldetik, hark ere mundu militarerra joko du; baina ez da betekizun horrengatik ezaguna egingo gure bigarren protagonista.

Beraren bizitzak bi etapa nagusi izango ditu. Lehenengoa zinetan hezkuntza zaindua izango duen Britainiako dukeen kortean: mutil jatortzat zeukaten, esperantza handiak zituen aristokraziak berarekin. Baina aita zein ama hil egingo zituzten, aita 1415ean D´Azincourt-eko batailan eta, une hartan, Jean de Craon zaldunak haziko du Gilles. Hazi, agian, hezi gutxi.

¹ Ez al zuen Santiago apostoloak Zaragozan Amabirjinaren bisita izan Hispania kristautu zezan bultzatzeko?

XV. mendean gaude, eta, garaiari dagokionez, indarra zuzenbidearen gainetik dagoela irakatsiko dio de Craonek Gilles gazteari, armak maitatzen –gauza arrunta Erdi Aroan gaudela ahazten ez badugu– eta horrela karrera militarri helduko dio berehala.

Gilles de Rais, Frantziaren ipar mendebaldeko jabea izango zen: Frantziako mariskala, Anjouko dukea, Britainiako jauna... halaber, hainbat gaztelu eta lur eremuren jabe genuen.

De Rais-ek antzerkia maite zuen eta elizetako abesbatzak, kantak eta handitasun guzti hura: diru asko xahutzen hasiko da horrelako ekintzetan ia-ia behea jotzeraino, baina...

Ingelesak ziren nagusi Frantzian, eta nahikoa lan ematen zieten exagonoko noblei.

Gilles de Rais-ek Juana ezagutu eta harekin bat egin nahiko du ingelesten aurkako bere borrokan. Zer harreman mota izan ote zen bien artean? Joanak dontzeila, *neskaso* zen eta horrelakoa izaten jarraitu nahi zuen.

Baina traizioa medio, nonbait, frantses zenbaitek ingelesten esku utzi omen zuten hura. Gero, denok dakiguna, sutan erre zuten Juana Rouen-go hirian, baina ingelesek? Suaren inguruan frantses inkisidoreak zebiltzan. Berriro ere, historia galdekizun, historia mitoaren eta errealitatearen arteko borrokan.

Eta, Gilles de Rais zertan ari zen? Biziki sentitu omen zuen dontzeilaren galera. Baina zer gertatu zen harrezkero?

Bada, gerra pasarteak saihestu ditzagun eta hurbil gaitezen de Rais figurarengana.

De Rais-i buruz esaten da, saiatu zela hura sutatik salbo uzten, baina...

Gauza da hiru urte haren berri handirik izan gabe, halako batean...

Frantziako eskualde hartan hainbat urtez haurren bahiketak eta hilketak gertatu ziren.

Geroago zabalduko zen erabat albistea: gure beste protagonista erabat inplikaturik zegoen, haur eta gaztetxoek sexu bortxaketa eta era guztietako indarkerietan.

De Rais-en *sistema* ezin doilorra goa gertatuko da: gehienetan bere akolitoek haurrak bahitu, lapurtu egingo dituzte, askotan sei urtekoak. Gillesen logelara eramaten zituzten non zaldunak era guztietako perbertsioak egiten zizkieten, gero hil egiten zituela. Hau guztia ez da ipuina, ez da leienda. Ez. 1440an, 36 urtekin epaitu eta sutan erreta hiltzera zigortua izan zelarik, epaiketaren ñabardura guztiak ezagunak dira, idatzirik jaso baitziren. Hari esker, jakin badakigu de Rais-en doilorkeria noraino iritsi zen, 800 haurretik gora izan daitezke de Rais-ek hil zituen umeak. Urte askoz geroago Ch. Perrault-idazleak XVII. mende hondarrean, idatzi zuen maitagarrien ipuin hura non Barbe Bleue, deitzen zioten gizon ustez arrunt bati, ezkondua, baina hainbat eta hainbat aldiz

alargundua eta hara non bere gela batean ezkutatzen zituen berak hil zituen aurreko emazteen gorpuak aurkitu zizkioten.

Juana d'Arc-i buruz berriz, XIX. mendean, batez ere, puztu eta lardaskatu zen haren historia: Michelet historiagileak nagusiki, eta, Frantziako historia nazionalistak noski, Juana Frantziaren askatzaile saihestezintzat bihurtu nahi izan zuten. Gutxienez, bi alderdi azpimarratuz haren baitan: santutasuna, kristautasunaren ikur, eta, batez ere, Frantziaren historiaren batasuna aldarrikatuz, Donr emyko neskaren baitan frantziar balore askatzaileak ikusten zituztela.

Gilles de Rais-en azkena ere, heriotz-zigorrarekin amaituko da.

Auzitegiak delitu hirukoitza ikusi du haren portaeran: sorginkeria, sodomia eta hilketak (asasinatzeak).

Hori bai. Hil hurren zegoela ere, bere etorria ez zen saihestekoa. Urkamendiaren zain, bere mendekoak kitzikatzen zituen esanez beren arimen salbazioaz arduraturik zeudela eta, Jainkoaren miseriak konfiantza eduki behar zutela eta harengan sinetsi; ez baitzen existitzen, gizakiak egin zezakeen bekaturik handiena izanik ere, Jainkoak barkatuko ez lukeen bekaturik, bere onberatasuna eta gozotasuna hain handia baita.

Honen guztiaren aurrean, idazleak, bidegurutze honetan planto eginez, eskubide osoa du berak ere, mitoaren aurrean bere fikziozko proposamena egiteko.

Antzezlan 50 urrezko ontzaren truke

Vincent, antzerkigile frantsesa Euskal Herrian da, azken Karlistaldian, hots, XIX. mendearen azken laurdenean. Muga inguruko herri txiki batean gertatzen da frontean, militar karlista batek urrezko ontza batzuk eskaini baitizkio, antzezan bat egin dezan, horretarako Urbina koronel karlistak Frantziara egin dion bisitan adostu duten bezala. Dirua, azken finean.

Antzezanaren helburua da, suposatzen du irakurleak, karlistek euren tropak suspertu eta beraiei adore ematea, liberalen kontrako gerran sutsuki jarrai dezaten.

Antzezgaiaren haria ximplea da *a priori*: Vincent antzerkigileak Arc-eko Juanaren pertsona erabili beharko du, hots, *La pucelle d'Orléans*, hau da, Orléans-go dontzeila, *leitmotiv* bezala. Ispilua legez, laurehun urte lehenago, XV. mendean gertatu zena: orain, XIX. mendean, gerraren egoera kritiko hartan, alegia, dontzeila haren adorea XV. mendean ingelesak Frantziatik botatzeko ahalegin militarra goratzen eta adibidetzat jotzen baita. Gauza da, *la France triomphante* haren zelanbaiteko paralelismo sorrarazteko antzezlan haren egitea.

Orduan, Juanak, Charles VII erregearen alde egiten zuen, hots, orduko Frantziako erregea. Antzezenak baina, ezagutzen den historiatik haratago doa: aurrez aurre, egiazko historiari, antzezena biribiltzera, fikzioan murgilarazten baita, Carlos, Espainiako erresumarako karlisten hautagaia barneratu beharko dutela, hots, haren panegirikoa eginez, suposatzen da, haren figura gailendu nahi delarik, eta, bide batez, paralelismoa eginez, karlisten armadak Espainiako errege-erregina legez kanpo betetzen ari den tronotik boteaz.

Antzezanera itzuliz, adostuak ditu Vincent-ek Lizarraga karlisten goi mailako militarrekin batera, koronelarekin alegia, gorabehera nagusiak. Urbinaren baldintza, oraingoz bakarra, Carlos karlisten hautagaiaren eta XV. mendeko Charles VIIa erregearen arteko paralelismoa ezartzea izango da.

Baina Vincent-ek, lotura afektibo berezirik ez duena antzezanaren nondik norakoaz, bera frantsesa da eta mendi arteko paraje hartan gertatzen dena ez dio su berezirik sorrarazten, bere baitan bere pentsamendu askeak, Gilles de Rais mariskala, D'Arc-eko Juanaren lagun gudan, alegia, sartzearen aldeko apostua egingo du. Gilles de Rais nor izan zen badaki eta ez du seguruenik haren curriculum goraipatu, baina haren figura **izugarriak** erakartzen du, edozein aurrejuzgutik kanpo.

Horrela behar lukeela pentsatzen bide du Vincent-ek, eta, zinez, jarrera libre eta aske batetik, erabat amoralak dena, artea nolakoa izan behar duen erakutsiz, planteatzen du antzezlanak. Baina nork uler lezake bere mezua gerra giro batean? Fanatismoari beldur dio, eta, horrelakoetan, Victor Hugo olerkari handia eta humanista ez txikiagoa gogoratzen du.

Karlisten kanpanlekua

50 urrezko ontza, horra Vincent antzerkilari frantsesak bereganatuko duen dirua hasteko. Artista izanik, ez du hasieran bere lana diru truke soil bezala jotzen. Egia esatera, ez du ondo ulertzen gerra haren funtsa. Edozein modutan, gerra bidez beste hautagai monarkiko bat, alternatiba bezala, Espainiako tronorako ez zaio erakargarri iruditzen. Baina trukea onartzen du: dirua, antzezlanak egitearen orde.

Berak aktoreak, tramoia eta bestelakoak antolatzen dituen bitartean, boterearen erakusketa dago. Urbina koronela Lizartza edekanaren gainetik dago eta, edozein unetan frogatzen dio. Baita Vincent-i ere.

Antzezlanaren prestaketak gorabehera asko izango ditu, batez ere, karlisten susmagarritasunagatik. Vincent-ek Gilles de Rais mariskala nahi luke obran sartu, baina Lizartzak ez du bere aurrean hura aipatu ere egin nahi. «ni ez naiz gerlaria» esango dio Vincent-ek Urbina koronelari.

Apaiz heterodoxoa: salbuespenak erregela berresten du

Egileak apaiz bat «bereganatu» du narraziora. Eta ez edozelangoa: ez da mengela, eta badu kriteriorik. Santa Kruz apaiza eta beste hainbat apaiz *trabucaire*-ren ondoan, Ultzamako apaiz nagusiaren soslaia ez da edozelangoa. Badaki Vincent-en eraso dialektikoei eusten. Elizaren ustezko kontraesanetan murgildu nahi du frantsesak, baina hark, berriro ere, badaki zer erantzun. Juana santa bihurtu zutela eta, apaizaren erantzuna iheskorra da: «Bai, baina Jaungoikoari begiratzen zion Arc-eko Juana batez hitz egiten diet nik nire eliztarrei...Santaren gerlari jarduna ez zait interesatzen»

Eta Vincent-entzat ere gertu dauka bere kritikaren labana. Ez zaio antzerkilariaren planteamendua gustatzen ez baititu arazoak konpontzen:

«Zertarako ari zara jendearen akimendua arintzen? Soldaduen indarrak berritu, eta osterak ere gerrarako kemena izan dezaten?» (73).

Karlistak eta antzerkilaria

Ez da gutxi karlista bat irudikatzea nora eta Frantziara jotzen, garai hartan gure karlistek amesten zuten gizarte haren antipodetan zegoen lekura, zertara eta hango

antzerkigile bat hona ekartzeko. Helburua, esana dago, Arc'eko Joana ospetsuaren adorea eta oldarra bertoko soldaduei eredu bezala jarriz, beraien gerra-espirtua jasotzeko.

Urbina-Lizartza bikotearen eta Vincent-en artekoan, bada, interes desberdinek egiten dute talka. Karlistek euren gudarostea, Dios-Patria-Rey goiburuari jarraiki, Juana D'Arc dontzeila hark arestian aipatu ditugun ikurrek sinbolizatzen zutena goraiatu, bereekin bat egiten zutela kontura zitezten.

Vincent-i, ostera, Pirineoaren magalean gizataldeek daramaten gerra hari anakronismo itxura guztiak hartzen dizkio. Egin asmo duen antzezlanaren libretoari literatur alderdiari ere begiratzen dio. Juanaren bizitzaren hipotesietan murgildu nahi luke: zaldunaren eta neskaren artean zer gerta zitekeen...Biek ala biek Frantziaren ohorea bilatzen zuten? Ba ote zen beraien arteko maitasunik? Gizaseme kontraesankorra ote zen Gilles de Rais? Kriminalik handienak ere ba al du zalantzazko portaerarik?

Historia eta mitoa, mitoaren fikzionatzea...Vincent-ek gogoeta egin nahi du: mitoari oratu nahi dio.

Gilles-Denis: crescendo harrigarrian

Denis-ek, karlista borrokalarien artean Vincent-ek aurkitu duen gazte efebo antzekoa ez du antzerkilaria hotzapel utziko. Antzezlanara garatuz doan neurrian, frantsesaren grina haziz doa. Lortu duelarik Gilles-en pertsonaiaren antzezpenean sartzea, hura gailurra izango da:

“Zure itzala izango naiz, Joana: zoazen tokira zoazelarik ere, ondoan izango duzu Gilles de Rais”

Maitasun platonikoa dirudi. Aski zaion zaldunari bestearen kontenplazio soila pozarren, estastik hurbil sentitzeko, “bizitzan bizi izan ditudan segundo ederrenak dira” (100).

Hurrengo planoak historiara hurbiltzen direla esango genuke: Juanaren ezetza dator (Denis). Baina, berriro fikziora joko genuke. De Rais-ek ez du hain erraz arrio egingo:

“Nire bihotzak isilarazi behar dudala? Zeruak zer eskaintzen dit zu baino hoberik?”

Libreto aldaketa eta traizioa

Libreto aldaketak bada, obraren *crescendo* izugarria ekarriko du. Lizartzak batez ere, ohartzen da botere absolutoa hartzen ari dela kanpamendu hartan. Urbinaren itzala izatetik, morroia, azken finean, haren traizioaren ondoren, Vincent, apaiz heterodoxoa eta, oro har, antzezlanaren nondik norakoa kontrolatzen du. «Haren begietako sua ez da hirarena, luzaz marruskatutako mendekua gauzatzen ari dela baizik» (104).

Antzezipena aurrera doa eta galdera kritikoak datozkio Juanari. Laburbilduz, batek dirudi garrantzizkoa: »Esaguzu, Jaungoikoak ingelesak gorrotatzen ditu?»

Baina, akaberako azken aktoa ezetz esatera dator: apostata, heretikoa, idolatratzat joko dute. (...) «eta gizonezkoen galtzak janzen ditu» Beste hainbat salaketaren ostean, interesgarria Vincent-ek egiten duen ahalegina, Gilles-en rolari protagonismo emateko:

«Esadazu Juana, esadazu laztana»...

Baina fikzioak errealitatek ezezkorrarenari bide emango dio. Vincent-ek inondik espero ez zuena, Denisek traditu eta salatu egingo ditu: apaizarekin batera, liberalen argitalpenak erabiltzen ikusi zituen.

Vincent atxilotu egingo dute. Lizartzak, absolutismoak fikzioan lortu ez duena, antzezlan erabat zentzu berekoa, apologetikoa antzezte, errealitateak (indarrak) erdietsiko du: Lizartzaren komunikatuak gauzak argi utziko ditu. Aurretik etsi-etsita zebilen Vincent: «Galduta dago Urbina, balduta Ultzama apaiza, galtzeko bidean ni neu» (105).

Alperrik zaio Vincent-i Lizartzari ikusaraztea, fikzioan ez dela Vincent-ik, Gilles de Rais baino. Baina errealitatea fikziotik ere elikatzen da.

Iltze gori horri heldu nahi lioke antzerkilari frantsesak, batez ere esaldi hura entzuten duenean:

–Vincent, atxilotuta zaude

Eta frantsesak bere ihardespenean, fikzioari oratu nahi dio:

–Vincent, Nor arraio da Vincent?

Alde batetik, pozik behar luke frantziarrak bere gidoiak horrelako erantzuna izan duelako baina Lizartzaren komunikatuak ez dio esperantzarik ematen. Konplotaz hitz egiten baitu!

«Urbinaren koronelak burututako konplotaren barruan eta haren desertzioan zerikusit berezia izan du fede katolikoa iraindu eta kemen legitimista itzali nahi zuen frantses ero baten *La Pucelle* antzerkiak...»

Euskara

Gure gaurko idazlearen prosak esan daiteke, inolako zalantzarik gabe, eta, aspaldi honetan bezalaxe, Lertxundiren gainerako obra zabalean, zenit-a, gorena jotzen duela. Euskararen adierazpideei zukua ateratzen, hitz eta adjektibo berriak sortzen bereziki, maisu dugu. Adibidez, kutsu onomatopeikoa duten berbetetatik hasiz: «tirlitorloka, sisibasak» zapelatz-zapoa (76); esaldi hiperbolikoak: «zorne bereko lupuak». «Munduaren akelarretan dago zakur-zulo hau». Adjektibo despektiboen uzta ere ez da makala: «**tonto-lakaria**», «**lakari-baba**» **Zorne-kumea**. «**Luki** (azeri) **barrabas**». **Madarikatu-zakila** (62), **xalo-bizkotxa** (63). Luzifer, **Txerren**, deabruak, alegia, Erdi Aroan horren presentzia handia zuen irudia aintzat hartuz, **Txerrenen kakeria** esapidea ematen digu idazleak (28).

Izen sintagma luzea paratuko du lortu nahi duen efektua lortzeagatik: «**bizar-peitu musu leun bat**» (40). Alegia, bizar **gabeko** musu leun bat.

Konparaketa ezin bisualagoak: «**gatzari harra egingo balitzaio** baino gehiago harrituko zinateke»...Metaforak, oro har, esplizitoak, batez ere. Termino gutxi erabilien berreskurapena: «Larrantz (=larru antz) zimela». Esakunak (sententziak):

«Urbina koronela testu aldaketan jakinaren gainean bailegoen hitz egin nuen badaezpada, **Lizartzak ardorik egin ez zezan kamamilarekin**» (71). Edota: «**Trumoiak ez du jotzen lainorik gabeko zeru batean**»...Hiperbolera ere jotzen du zenbait esapidetan: Prest nengoke (...) «deabruarekin berarekin ere **lapadantzan hasteko**»

Hiztegi mailan bada gure egunerokotasunean erabilera gutxi duen hitzik:

Aipatu dugu **pei**, zerbaiten falta, gabezia. **Bildumen**, kandela (58), **Despit**, mespretxua, alegia. **Arao**= birao, ezagunagoaren berdinkide; espresioak: **kalamusietan** hasi, erreberentziak egiten. **Putin** egin: ostikoka.

Eta abar, eta abar.

Iritzia

Kontakizun labur baina trinko honetan, Anjel Lertxundik fikzioaren eta errealitatearen arteko harremanaren nolakotasuna proposatzen digu, besteak beste. Eta horretarako irakurri dugun bezala, kontakizunaren oinarri-oinarrian, bi garai jarri ditu: XV. eta XIX mendeak. Erlijioaren nagusitasuna batean zein bestean; historiak *totum revolutum* batean haren inguruan gizakien apeta eta alderdi makurren praktikak nahasirik datozela erakusten digu. Errelatoaren erdigunean, gertakari gailen, magnizidio baten antza hartzen duen Arc'eko Juanaren heriotz-zigorra eta urkamendia su azkarrean. Harrez gero bere bidean geroz eta handiagoa bilakatzen den elurrezko bola bezala, fikzioa eta errealitatea hain datoz nahasirik non deus ez den garbi azaltzen. Horrelako egoera batean, indarra hartzen du fikzioak sasi-errealitate berri bilakatzen delarik. Izan ere, fikzioa ezin gutxietsi daiteke, era askotako eragina du errealitatean eta alderantziz. Egia esatera, ontzi komunikatuak dira, biak ala biak.

Vincent-ek fikzioa oso urruti eraman nahi izan du, eta, horrelakorik, ez diote baimenduko euren gudarosteak adoktrinatzeari baino bilatzen ez duten militar haiek.

Oro har, nobelan barrena gizakiaren historian egosi diren hainbat gatazka plazaratzen dira: bekaizkeria (inbidia) Lizartzak, agintekeria, Urbinak. Boterearen jabe egiten denak aurrekoaren akatsak eta bertuteak, azken hauetatik gutxi, hartzen ditu. Bestalde, gertakarien manipulazioak pagaburu bat (chivo expiatorio) behar du. Vincent-ek aurreratu zuena, alegia, errealitatearen diagnosia bete egingo da: Urbinaren fanatismoak eta Lizartzaren hipokrisiak bera ere harrapatuko dute. Fanatismoak, ondo esaten du, ez du bera erakartzen, baina bai, tamalez, kanpamendu hartako asko. Apaiz nagusia eta bera izango dira biktima. Vincent-ek karlisten ortodoxiatik aldentzeak larrutik ordainduko du.

Azkenik, fikzioaren tratamendua dator. Edota haren alderdi etikoa. Eta, agian, ohiko itauna? Gizakirik doilorrenek ere ba aldute eskubiderik euren alderdirik nobleena plazaratzeko, edota, horrela balitz fikzio bihurtzeko? Hastapenean aurreratu dugun legez, uste dugu askatasunak hori guzti hori bermatu behar lukeela.

IDAZLEAREKIN HARIXA EMOTEN

<https://www.eibar.eus/eu/kultura/jsm-liburutegia>

<https://www.liburutegiak.euskadi.eus/eibar>



@EibarLiburutegi



@EibarkoLiburutegia



@eibarkoliburutegia



@eibarkoliburutegia



Juan San Martin Liburutegia

Bista Eder, 10 (Eibar)

Tel. 943 70 84 37

liburutegia@eibar.eus



Euskara Elkarte